

MAITEARI (1)

<i>Elorri Liburua (ELR) (2)</i>	<i>Elorriko lorea (ELRL) (3)</i>
<p>Gauza ederrok baiño ederrago bada gauza eder guztiok egin zaituena, itzi eidazu, arren, beregana joaten, maite kutunena.</p> <p>Ederra jat mundua, zu ederragoa; alabaiña areago –neure atsegin ori–, zeuk agertu deustazun Egille Jainkoa.</p> <p>Itzi eidazu bada beregana joaten, maite kutunena.</p> <p>Nik etzaitut lagako arimaz, egundo, neure erraien arreba birjin ta lorazko.</p>	<p>Gauza ederrok baiño ederrago bada gauza eder guztiok egin zaituena, itxi eidazu, arren, beregana joaten, maite kutunena.</p> <p>Ederra jat mundua, zu ederragoa; biok baiño geiago alabaiña <u>egin zaituen Jainkoa</u> [aren ta bion Jainkoa].</p> <p>Itxi eidazu bada Beregana joaten maite kutunena.</p>
.	<p>Nik maitatuko zaitut, lur eder txataltxua Evaren alabarik geien sartu zaiatan <u>gozo ta erraiñua</u> [lore usaikua].</p> <p>Nik maitatuko zaitut, <u>maitasun gorenez</u> [baiña betiko maitez] <u>argia</u> [izarra] ta egia maite ditudan lez, beti maitasun garbiz, beti gogo <u>betez</u> [utsez].</p>
Pozik eroango dot zure gomuta leuna neure Jaunaganako bakartade bidez	<u>Zeure gomuta leuna pozik eroango dot</u> [Zeure gomuteagaz geldituko naz soil] <u>bakarrik argi bat lez</u> [ez zure gorputzez].
<p>Beti maiteko zaitut biotz-ondo gurenez: argia ta egia maite ditudan lez; beti maitasun garbiz..., beti gogo utsez.</p> <p>Jaunari opalduko deusat, ardo dakion, zugan maitez eskeiñi eustan zoramena.</p> <p>Profesa egun aundiz eder ixuriko dot bere ontzi garbian..., beste zenbait naiari gozokin batera.</p> <p>Neure opari zindo: Jaunaren eskuetan ziur izango zaitut, galtze-bildur gabe. ...Ta zugaitik asago maitatuko dot Jauna eta arima zoratuz maiteko zaitut, laztan, deitu nauan Jaunagan biotz aldatu-gaitzez maite nai zaitudana.</p>	<p>Nik maitatuko zaitut <u>neure Jaunaganako urrutiko bidez</u> [baiña neure Jaunaren aingeru bazintzez]. Berari biurtuko deusat, <u>opari-aidez</u> [ene zitori], zugan maitez eskeiñi eustan <u>zoramena</u> [ardau onena]. Berak <u>goza</u> [edan] zaizala mama lilluratzaille <u>zoragarri</u> [gozagarri] hori.</p> <p>Bere ontzi garbian ixuriko zaitut beste ardo <u>edariak</u> [ederrak] ixurtzen dodazan bezela, eta geroz Beregan maitatuko zaitut, eta zeugatik asau maitatuko dut Jauna eta arima garbiaz maiteko zaitut, laztan, <u>deitu nauan Jaunagan</u> [neure goiko Jaunagan] betiko maitasunez maite nai zaitudana.</p> <p>Itxi eidazu bada Jaunagana joaten, maite kutunena.</p>

<p>Zure edertasun ori Jaunagan lego obeto, arengan ez baida sekula galduko.</p> <p>Itzi eidazu bada Jaunari opalduten zure edertasuna.</p>	
<p>Ez dakizu lorea jausiko jatzuna?</p> <p>Begira zure, ama beste zeure pareko eder bat izana.</p> <p>Lorea joan jakon, orri-guri zana trukutz geratu da.</p> <p>Ez, neure kutuntxu; txarto aituta zagoz: Ondoa ez dozu lore-bizitzan geien maitatu bear dozun gauzea, bai-zera!</p> <p>Loraetan ba-da, zerbait, loraekin galduten ez dana: Loraen zoramena dagian, ederrezko, jainko “tasuna” da.</p>	<p>Ez dakizu lorea jausiko iatzuna? Begira zure ama beste zeure pareko eder bat izana.</p> <p>Lorea jausi iakon, orri-guri zana trukutz geratu da.</p> <p>Ez neure kutuntxu, oker oituta zagoz.</p> <p>Lorea ez dozu lore-bizitzan geien maitatu bear dozun gauzea, bai zera!</p> <p>Loraetan ba-da, zerbait, loraekin galduten ez dana.</p> <p>Loraen zoramena igartuteko diran orri ariñetan ipiñi dauanaren <u>jainkozko zerbait da</u> [Jainko “tasuna” da].</p>
<p>Eguzki aundiaren ispillu txiki diran gauzak aituko dira; ez azaldu daroen jainko “tasun” printza.</p> <p>Aidezko urre bat lez , illaun eta jaio, aldatuko da gero, une batean, beste jagiko dan aldi bat apaiñez jazteko.</p> <p>“Tasun” eder-altsua ibil-sarri dago, gauza barriak sortu, argitu... ta igaro.</p>	<p>Eguzki aundiaren ispillu txiki diran lorak galduko dira; ez beñ azaldu eben Jainko “tasun” printza.</p> <p>Larrosea jausiko. Gero, berelako [eta berelako] beste bat jagiko usai eta margo.</p> <p><u>Jainko aberats Jaunak</u> [Jainko eder-altsuak] <u>esker sarriz dago</u> [<i>sic</i>] [denentzako dauko]; eta Jainko “tasunik” ez da desegingo.</p> <p>Arengandik ba-dator gauzaen zoramena, itxi eidazu, arren, Jaunagana joaten maite kutunena.</p>

<p>Printza orrek badagi zure zoramena, itzi eidazu aren jatorrian maitatzen zure edertasuna.</p>	
<p>Ustelkorragaz bat bizi bear dogu, suntsituko dana zergaitik maitatu? Usteltzekoa biar galdua badozu, il daitekena barik, beti biziren dana maitatu egizu. Begioi irakatsi eiozue, maite. Gauzok egun bateko loreak dirade: ustelkorrez jausi ta desegingo dira. Baiña Jaunaren eder... “tasun” orren diztira, izpien osotasun guztiez joango da, urten gabe, aldikoz, urten dauan Begira.</p> <p>Maite: jadanik, luzaro ausnarturik bizi dodaz egiok. Jaungoikoagan nai dodaz, orain, maite zaituen begiok.</p> <p>Gauza ederrok oro, Jaungoiko-argiz zareen ezkerokoz eder, Jaunagan nai zaituet. Nire maitasunak etzaitu aztuko.</p>	<p>Ustelkorragaz bat bizi bear dogu. Usteltzeko dana zergaitik maitatu? Usteltzekoa galtze-bidean ba-dozu usteltzekoa barik, beti <u>biziren</u> [biziko] dana maitatu egizu. Begioi erakutsi eiezue [<i>sic</i>], maite. Gauzok egun bateko ispillu dirade: ustelkorrez jausi ta desegingo dira. Baiña Jaungoikoaren “tasun” orren diztira [aldikoz urtu dauan iturrira begira,] (4) beti egin doazan, jaio doazanetan, izpi bat galdu gabe agertuz joango da bein ta barriro, azkeneraiño.</p> <p>Maite: iadanik ausnartuta nik bizi doaz egiok. Jaungoikoagan nai dodaz orain guzur zalezko begiok. Gauza ederrok oro Jainko argiz zarien <u>eskerokoz eder</u> [ezkerokoz deus eder] itxi eidazu bada Beregana joaten, maite kutunena. [Jaunagan nai zaitut (4) nire maitasunak etzaitu aztuten].</p>

OHARRAK:

ELR-ren 1. edizioan jarraian dago poema osoa; baina bigarren edizioan lau atal handitan edo banatuta argitaratu zuten. *Egan* aldizkariak ere argitaratu zuen olerkia, sei ataletan banatuta, baina bestelako aldaerak oso txikiak dira horien artean.

ELRL-ko bertsioa, seguruenik aurrena izanik, oso ezberdina da beste ELR-koaren aldean, eta gainera eskuz berriro zuzentzen saiatu zen.

(1) “Maiteari (Agur hitzak)” titulua *Egan* aldizkariak eman zion olerki honi.

(2) *Egan* aldizkariako argitaratu zuen aldaera ez dugu hemen sartu, ELR-koaren antzekoa delako oso; eta horren aldaera txikiak adierazita daudelako ELR-ko aldaera nagusiaren barruan.

(3) ELRL-ko makinazko testuaren gain hainbat aldaketa egin zuen autoreak eskuz; makinazko formak kortexteen artean ipini ditugu, eta haiei dagozkien eskuzko aldaketak azpimarratuta daude.

(4) Kortexteen arteko lerro hau tarnean gaineratzekotan idatzi zuela dirudi eskuz, ez besteren baten orde.